



1. Gure ideia: ReStudy

Gaur egun, ekologiari eta berotze globalaren inguruan dugun kontzientziari esker, gero eta **arduratuago gaude gure planetaren etorkizunaz**. Gure planeta jasaten ari den klima aldaketarengatik eta horrek eragiten dituen ondorioengatik, azken urteotan **enpresa askok produktu ekologikoak atera dituzte**: koadernoak, arkatzak, estutxeak... **Baina, produktuok eskuragarriak al dira ikasle guztiontzat?**

Galdera horri erantzuteko guk **ReStudy** enpresa sortu dugu. Gure enpresaren izenaren **"re-"aurrizkiak** berriro erabiltzea esan nahi du, eta hori da gure **enpresaren muina**. Gure enpresak **material ekologikoz egindako eskola edota bulego materiala** ekoizten ditu eta gure helburu nagusia **naturarekiko errespetagarriak** diren produktuak guztiontzat eskuragarri izatea da, hau da, **prezio ulergarri** bat izatea, baita ikasleengan zuzenean kontzientzia piztea.

